

MATERIALISMO HISTERIKOA

Aspaldiko partez



UXUE APAOLAZA LARREA

Lentejuelazko soineko arrosa bat daramat motxilan, paperezko poltsa zimurtu batean. *Tribunaleko metro* ahotik irten eta erakusleihoan ikusi dudana (probatu eta dantza gogoia jarri dit) Fuencarral kaleko jende andanari batu aurretik.

Pérez Galdosen *Recuerdos y memorias* (gainera, ataletako bat *Recuerdos de Madrid* sorta da; gaur nik erosteko idatzi zuen), Elisenda Julibertren *Hombres fatales* eta, umearentzat, *Diccionario por imágenes del mar*. Moyanoko aldapatik daramatzat, horiek eta hainbat elkarrizketa-zatiren heldulekua, hainbat irribarre konplizeren fereka. Abaniko arrosa bat ere badaramat umearentzat, Rastroan erosia.

Metroko 10 bidaiako bonoa, gastatu gabe: berriro urteak pasa aurretik itzultzeko promesa bat. Gran Vía-ko banku batean jandako pizzatik sobratutako zati bat (ez zegoen lekurik Luna Plazaren ondoan nik nahi nuen txinatarrean). Oraintxe jango dudana treneko kafetegian. Madrilgo zeruaren argia. Nire memoriarik gabeko ehundaka begiradaren kilimak begietan.

Goiz bat pasa dut Madrilen, zereginetik zereginera sortu den hiruzpalau orduko soilgune bat. Memoria luzedun etxera bidean noa trenez, hiru ordu ditut oraindik, bakarka, irakurtzeko.

Aspaldiko partez, ni dirudit berriro. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com



ADUR

Euskara

UEMAK aurkezturiko txostenaren arabera, euskararen erabilerak herri euskaldunenetan izan du galera handiena: etxeko erabilerak %81 izatetik %59 izatera igaro da 30 urtetan. Aztertzaileek gitarra neurriak exijitu dituzte.

Kutsadura

Haragia eta esnea modu intentsiboan ekoizten duten hamabost enpresak ia Europar Batasunak bezainbeste metano isurtzen du, ikerketa baten arabera. Gobernuak eskatu diete enpresa handiei mugak jarri eta metanoaren isuriak %30 murrizteko akordioa errespetatzeko.

Erraustegia

Donostiako Zubietako erraustegiak hiru urte bete ez dituenean, jada inguruko aire, lurzoru, ur eta landareak kutsatzen ari da dioxinaz eta bestelako gai toxikoz. Hala erakutsi dute bai ToxicoWatch fundazioaren azterketak, bai erraustegiaren jabeak eskaturikoak.